



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituen.

ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Lurralde Historikoko 1999ko Aurrekontu Orokorretan (abenduaren 23ko 13/1998 Foru Arauaren bidez onetsi ziren) epigrafe bat dago Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak emateari buruz; ondorioz, laguntza haiek nola eman araupetuko duten oinarriak ezarri behar izan dira.

Hori dela eta, Hirigintza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Xedea.

Dekretu honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei hirigintzako plangintza-tresnak egiteko gastuak ordaintzeko emango dizkien laguntzak araupetzea da; tresna horiek 4. artikuluan adierazi dira.

2. artikulua.- Laguntzak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira.

3. artikulua.- Onuradunak.

Deialdi honetako dirulaguntzak dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko udal guztiek jaso ahal izango.

4. artikulua.- Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak.

1. Laguntza jaso ahal izango da ondoren adieraziko diren hirigintzako tresnaren bat egiten denean:
 - a) Plan orokorra eta haren berrikuspenak.
 - b) Arau subsidiarioak eta haien berrikuspenak.
 - c) Onetsitako plan orokorra garatzen duen plan partziala, baldin eta lankidetzeta edo desjabetzapen bidez betearazten bada.
 - d) Onetsitako plan orokorra garatzen duen plan berezia, baldin eta gizarte onurakoa bada.
 - e) Desjabetzapen-proiektua, baterako tasazioa aplikatzen bada.
2. Halaber, laguntza jaso ahal izango da aurreko atalean aipaturiko tresnen idatzizko zatia euskarara itzultzeko.
3. Deialdi honetatik bazter utzi dira jarraiko jarduerak:
 - a) Dirulaguntza jaso dezakeen hirigintzako tresna egiteko kontratatutako agirietan agertu ez eta hirigintzako legerian xedaturikoaren arabera eskatzen ez diren lan edo azterlan osagarriak.



- b) Dirulaguntza jaso dezakeen hirigintzako tresnaren bat aldatzeko egiten diren lanak.

5. artikulua.-Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak.

Dekretu honek ondoreak izan ditzan, ondoko bi kontzeptuetako bategatik sortzen diren gastuen zioz jaso ahal izango da dirulaguntza:

- a) Udalak laguntza jaso dezaketen tresnak egiteko asmoarekin sinatzen dituen administrazio-kontratuen adjudikazio-kopurua.
- b) Dena delako plangintza-tresna ez beste ezertarako sortutako udal bulegoaren jardun onerako Udalak bere gastuen aurrekontuan (I eta II. kapituluak) onesten duen kopurua, baldin eta bulego hori Udalaren gainerako administrazio-unitateetatik organikoki eta aurrekontuan bereizita badago.

6. artikulua.-Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa ondoren adieraziko diren kopuruak bat eginez sortzen denaren %100 edo 75 izango da gehienez, kasuan kasuakoa, plan orokorra edo haren garapenerako izan. Hauexek dira batu beharreko kopuruak:
 - a) Kontratuko adjudikazio-aurrekontutik edo Udalaren gastu-aurrekontutik kontratuaren ordainketa eta burutzapen baldintzen arabera edo aurrekontuaren burutzapen baldintzen arabera aribideko urtean erabiltzeko ustea dagoen zatia.
 - b) Aurreko urteetan ziurtatu edo fakturatutako lanen zenbatekoa.
2. Nolanahi ere, dirulaguntzaz gainera xede bereko beste laguntzaren bat ere jasotzen bada dena delako hirigintzako tresna egiteko, denen arteko zenbatekoa ezin izan daiteke lanen kostuaren %100 edo 70 baino handiagoa, kasuan kasuakoa, plana orokorra edo garapeneko izan.

7. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak eta horretarako epea.

1. Foru dekretu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatu beharreko hilabeteko epearen barruan, aipagai ditugun laguntzetako bat jaso nahi duten udalek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Hirigintza Saileko sarrera-erregistroan:

A) Kanpoko aholkularitzekin kontratatzen diren lanetarako:

- a) Udalak dirulaguntza eskatzeari buruz hartu duen ebazpenaren ziurtagiria.
- b) Dirulaguntzaren eskaera-eredua, behar bezala beterik; I. eranskin gisa batu zaio idazki honi.
- c) I. eranskineko 1 eta 6 bitarteko zenbakikoetan adierazia agertarazi duen kontratuaren fotokopia bat.
- d) Behar denean, udalak kontratuko urteko kopuruak aldatzeko eman duen ebazpenaren ziurtagiria.
- e) Onetsitako fakturen ziurtagiria; ordaindurik daudenak adieraziko dira.
- f) Behar denean, xede bererako inolako dirulaguntzarik ez eskatu ez jaso ez delako adierazpen berariazkoa.
- g) Hala behar denean, eraikiko diren etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren edo beste herri administrazioen baten etxebizitza-planetan sartuta daudela frogatzen duten agiriak.

B) 5. artikuluan aipatu den udal bulegoak egindako lanetarako.

- a) Udalak dirulaguntza eskatzeari buruz hartu duen ebazpenaren ziurtagiria.



- b) Dirulaguntzaren eskaera-eredua, behar bezala beterik; II. eranskin gisa batu zaio idazki honi.
 - c) Udalak bulegoa sortzeko hartu duen ebazpenaren fotokopia.
 - d) Bulegoaren jardunerako 1999rako onetsitako gastuen aurrekontuaren ziurtagiria; aurrekontua kapituluka xehekatuko da.
 - e) Agindutako ordainketen ziurtagiria.
 - f) Behar denean, xede bererako inolako dirulaguntzarik ez eskatu ez jaso ez delako adierazpen berariazkoa.
2. Eskabidea formalizatzean, kontuan izan beharko da dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez ere dekretu honetako 6. artikuluan ezarritakoa izango dela.
 3. Eskabidearekin batera eskatutako agiri guztiak ekarri ezean, edota behar ez bezala aurkezten badira, udalari agindeia egingo zaio hamar eguneko epean konpon ditzan antzeman zaizkion akatsak, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.
 4. Nolanahi ere, Hirigintza Sailak eskabideak ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango du.

8. artikulua.- Eskabideak nola tramitatu.

1. Eskabideak Hirigintza Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ebatziko dira, Hirigintzako Zuzendari Nagusiak proposaturik eta sail horretako Zerbitzu Juridikoak eta Hirigintzako Zerbitzu Teknikoak txosten bana egin ondoren.
2. Aurkezten diren eskabideak ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, 7. artikuluan agiriak aurkezteko ezarri den epearen mugaegunetik zenbaturik. Hala ere, epe hori luzatu egin ahal izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.2. artikuluan ezarritako balizkoa gertatuz gero. Hasierako epea eta, hala denean, luzatutakoa berariazko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, eskabideei gaitziritzi egin zaiela ulertuko da.
3. Interesaturiko udalek edo Hirigintzako Foru Sailak eskaturik, laguntza eman izana administrazio-agiri bidez formalizatu ahal izango da, bi alderdiek bereganatuko dituzten elkarrekiko konpromisoak agertarazteko.

9. artikulua.- Laguntzak emateko araubidea.

1. Dirulaguntzak jarraiko lehentasun-hurrenkera honen arabera emango dira:
 - 1.-Burututako plangintza-lanak.
 - 2.-Egiten ari diren plangintza-lanak.
 - 3.-Emanda dauden itzulpen-lanak.
 - 4.-Egiten ari diren itzulpen-lanak.
2. Lehentasun-hurrenkeraren barruan, lehentasuna emango zaie gorengo lerruneko plangintza-tresnei, eta lerrun berekoen artean eskabidea lehen aurkeztu duenari.

10. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea.

1. Ematen den dirulaguntzaren zenbatekoa ziurtagiriak edo fakturak aurkeztu ondoren ordainduko da. Hori dela eta, udal administrazioak ondoko agiri hauek bidali beharko dizkio Hirigintza Sailari:
 - a) Ordainketa-eskabidea, organo eskudunak emana.



Bizkaiko Foru
Aldundia

Hirigintza Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituena.

- b) Ziurtagiria, faktura edo haien ordezeko agiria, bai eta emandako lanen jasoketa-akta edo haren ordezeko agiria.
- c) Behar denean, udal bulegoaren jardun onerako agindu diren ordainketak egin direla frogatzen duen ziurtagiria.

2. Hirigintza Sailean ordainketa-eskabideak aurkezteko azken eguna aribideko urteko abenduaren 15a izango da. Egun horretan udal onuradunak oraindik aurrean adierazitako agiriak aurkeztu ez baditu, emandako dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da.

11. artikulua.- Arau orokorrak.

Dekretu honen hizpide diren dirulaguntzak bertan xedatutakoaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko herri dirulaguntza eta laguntzak arapetu dituzten arau orokorren arabera eraenduko dira.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituen.

XEDAPEN ERANTSIAK

Lehenengoa.-

Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio dekretu honetan xedatutakoa betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.-

Dekretu hau oinarri hartuta eman daitezkeen laguntzen gehieneko kopurua 115.000.000 pezeta (691.163,92 euro) da. Horretarako, aurrekontu-zuzkidura jarri da 1999ko aurrekontu-ekitaldian: 430201 egitaraua; 732.99 kontzeptu-azpikontzeptua; 11.03 organikoa; 01457 agindu-zenbakia.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.-

Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

HIRIGINTZAKO FORU DIPUTATUA

Josu Montalban Goicoechea

DIPUTATU NAGUSIA

Josu Bergara Etxebarria



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituen.

I. eranskina

PLANGINTZA-TRESNAK EGITEKO LAGUNTZAREN ESKABIDEA

___/1999 Foru Dekretua, _____aren ___(e)koa

Udal eskatzailea

_____.

Udalaren arduraduna

_____.

Eskatutako dirulaguntza (pezeta kopurua)

_____.

(Kontuan izan beharko da 6. artikuluan xedatua, 10.2. artikularekin zerikusia duena)

Udalak sinatutako administrazio-kontratuaren datuak:

- 1.- Adjudikazio-erabakia: _____.
- 2.- Xedea: _____.
- 3.- Adjudikazioduna: _____.
- 4.- Adjudikazio-aurrekontua: _____.
- 5.- Burutzapen-epea: _____.
- 6.- Urtekoak: _____.

Urtea	199__.	199__.	199__.	_____.
Pezeta kopurua				

- 7.- Urteko kopuruak aldatzeko erabakia: _____.

Urtea	199__.	199__.	199__.	_____.
Pezeta kopurua				



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituena.

8.-Ordaindutakoa

Urtea	199__.	199__.	199__.	____.
Pezeta kopurua				

9.- Onetsitako ziurtagiriak edo fakturak, ordaindu gabe daudenak:

Urtea	199__.	199__.	199__.	____.
Pezeta kopurua				

10.- Emandako dirulaguntzak:

Dirulaguntza eman duen erakundea	Urtea	Pezeta kopurua

_____n, 1999ko _____aren ____ (e)(a)n

Sin.:



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituen.

II. eranskina

PLANGINTZA-TRESNAK EGITEKO LAGUNTZAREN ESKABIDEA

___/1999 Foru Dekretua, _____aren ___(e)koa

Udal eskatzailea

_____.

Udalaren arduraduna

_____.

Eskatutako dirulaguntza (pezeta kopurua)

_____.

(Kontuan izan beharko da 6. artikuluan xedatua, 10.2. artikuluekin zerikusia duena)

Udal bulegoaren datuak:

1.- Sartzeko erabakia: _____.

(ebazpen mota eta eguna)

2.- Bulegoaren izena: _____.

3.- Aurrekontu egitarauaren izena: _____.

4.- Udalak onetsitako gastu-aurrekontua (I eta II. kapituluak):

Urtea	199__.	199__.	199__.	_____.
Pezeta kopurua				

5.- Agindutako ordainketak:

Urtea	199__.	199__.	199__.	_____.
Pezeta kopurua				



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

22/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, 1999an hirigintzako plangintza-tresnak egiteko laguntzak arapetu dituenak.

6.- Emandako dirulaguntzak:

Dirulaguntza eman duen erakundea	Urtea	Pezeta kopurua

_____n, 1999ko _____aren ____ (e)(a)n

Sin.: